

9/10

*i*rizpena

GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZAK  
ARAUPETZEN DITUEN  
Dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2010eko uztailaren 30ean



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazaetarako Batzordea



*i*rizpena **9/10**



## **I. SARRERA**

---

Uztailaren 16an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Lan eta Gizarte Gaietarako Sailaren idazkia sartu zen. Beraren bidez, txostena eskatu zuen Gizarte Larrialdiko Laguntzak araupetzen dituen Dekretu Proiektuari buruz, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Berehala dokumentuaren kopia bidali zaie Batzordearen Osoko Bilkuraren kide guztiei bere proposamenak eta iritziak igorri eta hauen berri bidezko Lan Batzordeari emateko xedez, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduko Araudian ezarritakoaren arabera. 2010. urteko uztailaren 26an Gizarte Garapeneko Batzordea bildu da eta hartutako erabakietatik aurrera Irizpen Proiektu hau plaza-ratu da uztailaren 30eko Batzordearen Osoko Bilkurari aurkezteko. Data horretan gehiengoz onetsi da, Mikel de la Fuente Jna, EGABn UPV/EHUaren ordezkariaren abstentsiorekin.

## **II. AURREKARIAK**

---

Kontsulta egin diguten legegintzako ekimenaren xedea da Diru-sarrerak Bermatu eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak araupe-tutako Gizarte Larrialdiko Laguntzei (aurrerantzean GLL) dagokienaren araudi-garapena egitea. Arau honek herritartze-agiria ematen dio Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema berriari, bazterketa pertsonal, so-zial eta laboraleko arriskua prebenitzera eta herritartasuneko eskubideak benetan erabiltzeko baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko nahikoak ez dituztenen gizarteratzea erraztera zuzendutako tresnak araupetuta.

Instrumentu hauen artean GLLak daude. Hauek prestazio ez-aldizkakoak dira, gizarte-bazterketako egoerak prebenitu, saihestu edo arintzeko be-harrezkoak diren gastu espezifikoei, arrunt edo apartekoei, aurre egiteko nahikoak ez diren baliabideak dituzten pertsoneri zuzenduta daudenak.

Beharrian hauen estaldurari dagokionez, azkeneko urteotan antzeman da programa ia bakarrik erabili dela eskatzaileen ohiko etxebizitzarekin lotutako gastuei aurre egiteko. Udalek GLLen programa gauzatzeko orduan lortutako esperientziak agerian jarri du erabilgarri dauden baliabideen ehuneko handi bat, baliabide guztiak ez direnean, eskatzaileen etxebizitza edo ohiko alojamenduaren alokairu, gozamen eta mantentzeak sortutako gastuekin zerikusia duten kontzeptuetara zuzentzen zirela, eta estaldura txikiagoa lortzen dutela lehen mailako beharrianekin lotutako gastuko kontzeptuek.

9/10*i*  
Etxebizitzaren prestazio osagarriari buruzko urtarrilaren 12ko 2/2010 dekretua indarrean sartzean (aurrerantzean EPO), GLLak alokairuko gastuen estalduran, alokairu, azpierreantamendu, errentamendukidetzeta, ostatu, apopilotza edo gelaren alokairuko bere modalitatean, ordeztuko duen instrumentua abiarazi da, izan ere, EPOa EAEko erreferentziako prestazioa izango da aipatutako gastuak estaltzeko.

Horrela, hemendik aurrera, GLLen bitartez hipoteka, EPOk estali gabeko gastua, duten familien alojamenduko gastuak bakarrik estaliko dira, baita familia eskatzaileak Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarik (DBE) ez duen egoera urriak ere, azken hau ezinbesteko eskakizuna baita EPO-rako eskubidea edukitzeko.

Halaber, EPO agertzea mugarrizko izan da GLLek prestazio ez-aldizkakoen benetako izaera berreskuratzeko. Ohiko alojamendutik etorritako gastuen estaldurak, izan ere, sistemaren prestazio ia aldizkako bat bihurtu dute. Eta bere izaeraren diseinuagatik kudeatzeko zailtasun handiak eta atsekabeko hainbat maila sortzen zituen, hala hiritarren artean nola aplikatzen zuten profesionalen artean.

EPO, alojamenduko gastuak dituen DBEren familia hartzaile bakoitzaren eskubide subjektibo gisa, agertzeak arintasun eta segurtasun handiagoa ematen du etxebizitzarako prestazio ekonomikoaren pertzepzioan, GLLei larrialdiko salbuespenezko egoerei bakarrik arreta eskaintzeko ezaugarri handiagoko eginkizun bat erreserbatuta.

### III. EDUKIA

---

Gizarte Larrialdiko Laguntzak araupetzen dituen Dekretu Proiektuaren testuak 34 artikulua ditu, sei Kapitulu, Xedapen Gehigarri bat, Iragankor bat eta hiru Azken Xedapenetan banatuta. Laburbilduz, bere edukia honakoa da.

Lehenik, **I. Kapituluak** (1-7 bitarteko artikulua) arauaren **xedapen orokorrak** jasotzen ditu:

GLLak prestazio ez-aldizkakoak dira, izaera ekonomikoa dutenak, gizarte-bazterketako egoerak prebenitu, saihestu edo arintzeko beharrezkoak diren gastu espezifikoei, arrunt edo apartekoei, aurre egiteko nahikoak ez diren baliabideak dituen bizikidetzaren unitate batean integratutako pertsonen zuzenduta daudenak. Laguntza hauek diru-laguntzaren izaera edukiko dute, eta bere emakida EAEko Aurrekontu Orokorretan xede honetara kontsignatutako kreditua egoteari lotuta gelditzen da.

Estaliko diren gastu zehatzak (3. artikulua) honakoak dira:

a) Ohiko etxebizitza edo alojamendua gozatu eta mantentzeko beharrezko gastuak, alokairuko gastuak, etxebizitza edo alojamendu bat eskuratzearen ondorioz gizarte larrialdiko egoeraren aurretik hartutako interesetatik eta kreditu-amortizaziotik etorritakoak, energia, ur, estolderia, zaborren gastuak, baita hiri eta landa izaerako ondasun higiezinaren gaineko zergari dagozkionak eta ohiko etxebizitza edo alojamenduaren bizigarritasun eta oinarriko ekipamendurako beharrezko gastuak barne hartuta (altzariak, "linea zuriko" etxetresna elektrikoak, etxebizitza eta etxebizitzako oinarriko instalazioak egokitu edota konpontzeko gastuak).

b) Bizikidetzaren unitateko kide den pertsona bat edo gehiagoren lehen premiei buruzko gastuak, hala nola jantziak, hezkuntza eta prestakuntza eta osasun arreta, sistema publikoek estali gabeak.

c) a) eta b) ataletan adierazitako gastuko kontzeptuetakoren batek edo

bestelako oinarritzko beharriaz kasu egiteko beharrezko gastuak egiteak eragindako aurretiko zorpetzeko gastuak.

GLLek, berriz, izaera finalista dute (eta emanda dauden xedera bakarrik zuzendu behar dira), beste baliabide edo prestazio mota baten osagarria eta transferiezinak dira.

Ondoren, Dekretu Proiektuak araupetzen du GLLen pertsona onuraduna nor izan ahalko den, 18/2008 Legearen 46. artikuluan ezarritakoa garatuz. Laguntza hauek eskuratu ahal izateko beharrezko baldintzen artean honakoak daude:

9/10*i*

- Erroldatuta egotea eta benetako egoitza edukitzea prestazioa eskatu behar duen EAEko udalerrian, gutxienez eskabidea aurkezteko eguna baino 6 hilabete lehenagotik, salbuespenen batekin.
- Bizikidetzaren unitatea osatzea gutxienez urtebeteko aurrerapenaz, hainbat salbuespenekin.
- Etxebizitzaren Prestazio Osagarriaren hartzailea ez izatea, GLLak etxebizitzarekin lotu gabeko gastuak estaltzeko eskatzen badira izan ezik.
- 18 urte beteta edukitzea, salbuespen batzuekin.
- Estali nahi diren gastu espezifikoek aurre egiteko baliabide nahikorik ez edukitzea. Horrek hainbat eskakizun betetzea eskatuko du 18/2008 Legearen 15. eta hurrengo artikuluan xedatutakoaren ildotik, eta ezarritakoa baino ondare handiagorik ez edukitzea, pertsona eskatzaileari legokiokeen DBEren zenbatekoa erreferentzia eginda.
- ETXEBIDE, Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan inskribatuta egotea edo inskripzioa eskatu izana, alokairuko etxebizitzaren eskatzaile gisa, GLLak alokairuko gastuak estaltzera zuzenduta dauden kasuetan.

Ondoren, 6. artikulua pertsona onuradunen konkurrentzia araupetzen du Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 6.1 artikulua araupetutako etxebizitza edo alojamenduei dagokienez.

Ezartzen da ezen, oro har, etxebizitza berean bizi diren bizikidetzaren unita-

teei eman ahal zaien GLLen gehieneko kopurua bikoa izango dela, baina jarraian esaten da helbide berean Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioak eskatu ahal dituzten bizikidetz-unitateen gehieneko kopurua ere bikoa izango dela, zuzenbidezko prestazioak eskatu dituzten bizikidetz-unitateei lehentasuna emanda.

Jarraian **II. kapituluak** (8-14 bitarteko artikulua) **araubide ekonomikoari** buruzko kontuak araupetzen ditu:

Lehenik, xedatzen du diru-sarrerak bermatu eta gizarteratzeko arloan eskudun den Eusko Jaurlaritzaren Sailak urtero, Aginduaren bidez, eman beharreko gehieneko urteko zenbatekoak, oro har, finkatuko dituela GLLen kontzeptuan Dekretuaren 3. artikuluan aurreikusitako gastu espezifiko bakoitzerako. Gainera, pertsona eskatzailearen errekurso maila eta estali beharreko gastuen zenbatekoa kontuan hartuko dira.

Halaber, gehieneko zenbatekoa ehuneko jakin bat laguntza eskatu den gastuen zenbatekoaren gainean aplikatuz aterako da, gastuko kontzeptu bakoitzari aplikatu beharreko laguntzaren gehieneko zenbatekoaren muga dagoela. Aipatutako ehuneko lortzeko, pertsona eskatzailearen eta bere bizikidetz-unitateko kideen, baita, egonez gero, prestazioei onura atera diezaieketen gainerako pertsonen ere, baliabide ekonomikoen eta bizikidetz-unitatearen osaeraren arabera legokiekeen DBEren zenbatekoaren arteko koizienteari kasu egingo zaio, biak 18/2008 Legean eta garatzeko gainerako araudian ezarritakoarekin bat etorri kalkulatu.

GLLen pertsona eskatzaileak, baita bizikidetz-unitatea osatzen duten gainerako pertsonen ere, dituen hileko baliabideak erabakitzeko orduan, berriz, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuan, III. kapituluaren 2,3 eta 4 ataletan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Ondoren, **III. kapitulua** (15-24 bitarteko artikulua) **prestazioa aitortzeari** buruzko kontuez aritze da:



Dekretu proiektuak, bere 15. artikuluan, xedatzen du GLLetarako sarbidea egingo dela pertsona interesdunak, erroldatzea eta benetako egoitza dituen udalerriko Udalari, zuzendutako eskabidearen ostean. Berau udal gizarte zerbitzuen aurrean aurkeztu behar du, eta hauek pertsona eskatzaileei izapideak egiteko beharrezko diren informazio eta orientabide guztiak emango dizkie.

Jarraian, 16. artikulua eskabide honekin batera aurkeztu beharreko agiriak zerrendatzen ditu, 17. artikulua prozeduraren instrukzioa deskribatzen du eta 18. artikulua, berriz, Udalak pertsona eskatzaileak edo bere bizikidetzaren unitateko gainerako kideek eskuratzeko eskubidea duten eduki ekonomikoko prestazio sozialak eta baliabideak egiaztatzeko modua azaltzen du.

Ondoren, xedatzen da (19. artikulua) espedientea osatutakoan, gehienez ere 40 eguneko epe batean, eskabidea Udalaren erregistroan sartu denetik aurrera, erreferentziako oinarrizko gizarte zerbitzuak ebazpeneko proposamen-txostena egingo duela. Udalaren eskudun organoak ebazpen egokia emango du eta berau, gehienez ere 20 eguneko epe batean, proposamen-txostena emateko egunetik aurrera, jakinaraziko du. Aurreko epeak igarotzen badira ebazpen adierazia eman gabe, GLLak uko eginda daudela joko da, ebazpen adierazia emateko betebeharraren kalterik gabe. Ukatzeko ebazpena, edozelan ere arrazoitua izango dena, Udalak jakinaraziko dio pertsona eskatzaileari hamar eguneko epearen barruan, egintza eman duten egunetik aurrera zenbatuta eta jakinarazpena egiteko aurreikusitako epearen barruan (20 egun).

Ondoren, Dekretuak prestazioaren emakida eta ordainketari, GLLen bidez estali beharreko gastuak justifikatzeko beharrari eta prestazioari uko egiteko kasuak eta eskudun organoak aldizkako berrikuspenak egitea bezalako bestelako batzuei buruzko kontuak araupetzen ditu.

**IV. kapituluak (25-28 bitarteko artikulua) bidegabeko prestazioak itzultzeko** prozedura araupetzen du: Hau egingo da justifikatu beharreko gastuen fakturak edo frogagiriak adierazitako epearen barruan aurkeztu ezean, baita pertsona onuradunak gizarte larrialdiko laguntzak bidegabe

edo bidegabeko zenbatekoan jasoz gero ere.

**V. kapituluak (29. eta 30. artikulua) prozedurako arau komunak** aztertzen ditu, keaxko idazki eta errekurtsioei dagokienez (29. artikulua) eta datuen konfidentziasunari eta Administrazioen arteko lankidetzari dagokienez (30. artikulua).

**VI. kapituluak (31-34 bitarteko artikulua) finantzaketa eta transferentziak** araupetzen ditu:

Xedatzen da urtero Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan beharrezko baliabide ekonomikoak kontsignatuko direla gizarte larrialdiko laguntzen zenbatekoak finantzatzeko. Gainera, Udalek urtero bere aurrekontuetan 18/2008 Legean eta Dekretu honetan, gizarte larrialdiko laguntzen izapidetze eta kudeaketarekin lotuta, aurreikusitako eskumenak burutzeko beharrezko diren baliabide ekonomikoak kontsignatuko dituzte.

Gizarteratzeko Erakunde Arteko Batzordeak aztertutakoan, eskuduna den Eusko Jaurlaritzaren Sailak, urtero, nagusiki premiaren adierazleei kasu eginda, GLLak estaltzeko kontsignatutako kredituak Autonomia Erkidegoko Lurralde Historiko eta Udalerrien arabera banatzeko orduan agindu beharreko irizpideak ezarriko ditu.

Sei hilabeteren buruan berrikuspen bat egiteaz gainera, aurrekontuko ekitaldia amaitzean Eusko Jaurlaritzak Udal bakoitzari dagozkion ordainketen behin betiko erregularizazioa egingo du emandako laguntzen ebazpenetan oinarriturik.

Azkenik, aurreikusita dago Batzorde honen irizpenaren mende jarritako Dekretua 2011. urteko urtarrilaren 1ean indarrean sartzea.

## IV. GOGOETAK

---

### **GOGOETA OROKORRAK**

#### AURRETIKO GOGOETA

Kontsulta egin diguten Dekretuko proiektuari dagokionez, bere eduki zehatzari heldu baino lehen, adierazi nahi dugu kezkatzen gaituela Batzorde hau araudi oso tekniko baten mende jarri izanak, batzuetan azterketa lasaiagoa eta egiaztatuagoa eskatuko luketen konplexutasun handiko elementuen gainean iritzia sortzeko epe oso laburrak daudela. Arau mota hau aztertzeari begira, denbora eta judizioko elementuak beharrezko dira, eta honelakorik ez dugu testua aztertzeko eman diguten epe laburragatik. Elementu hauekin guztiekin, iritzi bat osatzeko eskatzen digute eta honen gainean batzuetan ez dugu judizioko elementu nahikorik.

Dekretuko proiektuak argiago izan eta hobeto zehaztuago egon beharko luketen kontzeptuak jasotzen ditu: “Gizarte Larrialdiko Laguntzena” bera, salbuespenezkoa izan beharko lukeena bere definizioak berak adierazi bezala, “Prestazio ekonomiko ez-aldizkakoa (zabaltasun handikoa), “Gastua”, honek batere salbuespenezkoak ez diren gastuak jasotzen dituela dirudiena, “Bizikidetzaren unitatea”, “Ezkontzaren antzeko harreman iraunkorra”,... uste dugu kontzeptu hauek ez direla oso argiak eta hobeto zehaztu beharko lituzketela.

Eskatzailearen betebeharrei dagokienez, batzuek ematen dute aski laxoak eta salbuespen askokoak direla. Hortaz, agintaritza publikoaren gainean erortzen da GLL bat ematea edo ez egokia den esateko erantzukizuna, zuhurtziarakotasuneko maila handiarekin.

Horregatik guztiagatik, uste dugu Diru-sarrerak Bermatzeko Sistema ahalik eta sinplifikatuena desiragarria izango litzatekeela, laguntza guztien arteko koordinazioa ahalbidetzen duena herritarrari bizitza duina garatzeko diru-sarrera egokiak eskuratzea ahalbidetuz eta laguntzak jasotzen dituztenak gizarteratu eta laneratzea erraztuz, lehendik dauden beste batzuen laguntza osagarri batzuek lan-merkatuaren gainean eduki dezaketen edozein eragin negatibo, nolana ere, saihestuta.

## ARAUAREN BALORAZIOA

Gure kontsideraziora aurkeztu dute gizarte larrialdiko laguntzak (GLL) araupetzen dituen Dekretuaren proiektua. Hauek, bere 2.1. artikuluan, honela definituta: *“prestazio ez-aldizkakoak, izaera ekonomikoa dutenak, gizarte bazterketako egoerak prebenitu, saihestu edo arintzeko beharrezko diren gastu espezifikoei, izaera arrunt edo apartekoei, aurre egiteko nahikoak diren baliabideak dituen bizikidetzta-unitatean integratutako pertsonen zuzendutakoak”*.

Laguntza hauek diru-laguntzen izaera dutela eta aurrekontuari lotuta daudela jotzen dira, eta horren ondorioz, urtez urte, erantzun nahi dieten beharrianak betetzeko kontsignatutako baliabideak ez dira nahikoak izaten. Ez dugu ulertzen Dekretuaren 2. artikulua berak, Diru-sarrerak Bermatu eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 45. artikulua bezalaxe, xedatzea herri administrazioek urtero beharrian hauei aurre egiteko kantitate nahikoak kontsignatuko dituztela eta urtero milaka pertsona laguntzetatik kanpo geratzea baliabideak agortuta daudelako.

Gai honekin lotuta, eta aurreko batzuetan dagoeneko adierazi dugun bezalaxe, adierazi nahi dugu ezen, GLLak eskubide subjektibotzat hartu behar diren edo ez eztabaida alde batera utzita, funtsezkoa dela laguntzak jasotzeko finkatutako eskakizunak betetzen dituzten pertsonak hauek gabe gelditzea saihesten duen aurrekontuko zuzkidura nahikoa egotea.

Halaber, gure iritziz laguntza hauetara jotzeko sistema urte osoa zehar zabalik egon beharko litzateke laguntzen izaeragatik beragatik.

Bestaldetik, arloan eskuduna den Sailari urteko zenbatekoak ezartzeko Agindua urtero ematea erreserbatzea eztabaidagarria dela deritzogu, 9. artikuluan xedatu bezalaxe. Arau honek, gure iritziz eta zuzenbidean oinarritutako beste hobe bat egon ezean, Dekretu maila eduki beharko luke eta Gobernu Batzordetik igaro beharko luke, are gehiago dekretuaren proiektu honen 12. artikulua c) eta d) ataletan aurreikusitakoa kontuan harturik. Honek bizikidetzta-unitate bakoitzak zehazten ez diren

“ondoz ondoko aldi” batzuetan zehar jaso beharreko gehieneko zenbatekoa (12.000 euro) finkatzen du eta, jakina denez, Agindu batek ezin izango luke inolaz ere gainditu.

Egia esan, GLLak eskuratzen dituzten pertsonak jaso ahal ditzaketen zenbatekoen berririk ez dago, izan ere, hauek, gainera, Udalek aurrekontuko erabilgarritasunen arabera ezarritako irizpideen eta oinarritzko gizarte zerbitzuek egiten dituzten balorazioen menpe egongo dira. (11.2 artikulua).

Izaera orokorreko gogoetak bukatuta, Euskadiko EGABk beharrezkotzat jotzen du honakoak ematea:

## **GOGOETA ESPEZIFIKOAK**

### Hitzaurrea

Lehenik eta behin, uste dugu ez dela onargarria igorritako Dekretu proiektuak hitzaurrea ez edukitzea, erregulazio honi heltzearen egokitasuna eta adierazitako edukiek eragin dituzten arrazoiei erantzuten dieten balorazioa ahalbidetzen diguna.

### 5. artikulua. Pertsona onuradunak

Artikulu honek Aurretiko Gogoeta Orokorrean adierazitakoa errepikatzea ahalbidetzen digu: Bere idazketa ulertzen oso zaila da, izan ere, eskakizun bakoitzean bere eskagarritasunaren salbuespen ugari daude, araua ulertzea zailtzen dutenak. Hortaz, komenigarria izango litzateke bere edukia argitu eta sistematizatzea. Adibide moduan, aipatu behar dugu bizikidetzaren unitate gisa urtebeteko epea betetzeaz aurreikusitako salbuespenetan, 1.b) atalean aurreikusita, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5. artikuluan espresuki aipatuta dauden egoera guztiak ez daudela jasota, edo ez dagoela behar bezain argi aipatuta Gizarte Larrialdiko Laguntzek bestelako laguntza batzuekin eduki dezaketen bateragarritasuna.

1.d) atalak, berriz, gizarte larrialdiko laguntza eskatzeko baldintza gisa 18 urte beteta edukitzea ezartzen du, “*adin txikiko pertsonak edo gutxienez*

*%45eko elbarritasuneko kalifikazioa duten edo gutxienez II. Graduko 1. Mailako mendekotasuna aitortuta duten helduak, Autonomia Pertsonala Sustatu eta mendekotasuneko egoeran dauden pertsonen Arreta egiteko abenduaren 14ko 39/2006 Legean xedatutakoaren arabera, bere ardurapean ekonomikoki edukitzeko salbuespenarekin”, besteak beste.*

“Elbarritasuna” hitza “desgaitasuna” hitzaz ordezkatzea gomendatzen dugu. Arrazoia da abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretua aldatzen duen desgaitasun maila aitortu, adierazi eta kalifikatzeko prozedurari buruzko abenduaren 4ko 1856/2009 Errege Dekretuak “desgaitasun gradua” adierazpena ezartzen duela aurreko “elbarritasun graduaren” ordezko gisa.

9/10 

## 6. artikulua. Pertsona onuradunen konkurrentzia

Dekretu proiektuak artikulua honetan bizikidetza-unitateei eman ahal zaizkien gizarte larrialdiko laguntzen gehieneko kopuruaren muga finkatzen du, eta berau bitan finkatzen da. Dirudienez bizikidetza-unitate bat eman ahal liezazkiokkeen GLLei buruzko irizpideak bestelako parametro batzuekin zerikusia eduki beharko luke (etxebizitzaren bizigarritasuna adibidez) eta ez “*numerus clausus*” ezartzearekin. Izan ere, muga hau ezartzeak arazoak ekarri behar ditu errentarikideentzat edo ostatuetan bizi diren pertsonentzat. Gainera, bi eskabide baino gehiago batera egoteko egoera aurreikusgarria konpontzeko aurkeztutako formula, eskabidearen antzintasun-hurrenkeraren arabera ematea alegia, ez dirudi oso zorionekoa denik, ezta laguntzen muga honek pertsona askori eragin behar dizkien arazoak konpontzeko gauza izango denik.

Hori guztia, betiere parlamentuan izapidetzen ari diren Lege Proiektuak gogoeta honetan azaldutako ildotik beste irizpide bat jasotzen ez badu.

## 16. artikulua. Dokumentazioa

Laguntzaren eskabidea egiteko momentuan aurkeztu beharreko dokumentazioaren barruan hainbat alderdiri buruzko zinpeko deklarazioaren errekerimendua aipatu behar dugu. Zinpeko deklarazioak kutsu erlijio-

soa du, arauditik desagertzeko joera duena, “deklarazio arduratsuaz” ordezkaturata. Azken honek ondorio praktiko berberak ditu baina Estatuaren akonfesionaltasunarekin kontraesanezko ñabardurarik gabe. Gure ustez hau, deklarazio arduratsuarena, da Dekretu honetan erabili beharko litzatekeen terminoa.

### 28. artikulua. Preskripzio eta iraingipena

Artikulu honek, bere lehenengo atalean, esaten du “*gizarte larrialdiko laguntzen kontzeptuan bidegabe jasotako kantitateak itzultzeko betebeharra preskribituko dela Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorraren eskubide eta betebeharrei aplikatu beharreko araudian aurreikusitakoarekin bat etorritz*”.

Uste dugu Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorrari egindako igorpena ez dela egokia eta, horren ordez, komenigarriena izango litzatekeela Dekretuaren proiektuan epea finkatzea.

### 30. artikulua. Datuen konfidentzialtasuna eta Administrazioen arteko lankidetzak

Artikulu honen bigarren atalak xedatzen du “*Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioek espedienteak izapidetzean eskuratutako datuen konfidentzialtasuna bermatuko dutela*”.

Testu hau DBLO (Norberaren Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa) betetzeari erreferentzia eginez osatu beharko luketela deritzogu. Gogoeta hau berbera aplikagarri zaie 34. artikuluari (Datuen igorpena eta frogagiriak) bere lehenengo atalean eta Xedapen Iragankor Bakarrari, eta hori guztia Dekretuaren proiektuaren 16.4 artikuluekin bat etorritz. Honek administrazioeko ekonomia eta arintasuneko printzipioak eta herri administrazioen arteko lankidetzak eta koordinazioeko betebeharra aipatzen ditu, herritarrek aipatutako administrazioen esku dagoeneko dauden datuak eta dokumentuak ez emateko duten eskubidea bermatzeko xedez.

### Idazketaren hobekuntzak

Lehenik eta behin, 6. artikulua 1.a) atalean iradokitzen dugu GLL adierazpena “gizarte larrialdiko laguntzak” adierazpenaz ordezkatzeari, Dekretu proiektuaren gorputz osoan egiten den bezalaxe.

Era berean, proposatzen dugu 18. artikulua 4. atalaren “lerrokada” adierazpena (bi aldiz) “atala” hitzaz aldatzea.

Azkenik, uste dugu Dekretuaren hizkuntzak bateratua izan beharko lukeela testuaren beraren barruan; horrela adibidez, 5.1.d) artikuluan “aita eta amarik gabeko” 18 urtetik beherako pertsonak aipatzen dira eta 16.1.j) artikuluan, berriz, “erabateko zurtasuna” egiaztatzen duen dokumentazioa aipatzen da, eta azkeneko adierazpen hau, Gizarte Segurantzako arauetan erabilitakoa, egokiena da.



## V. ONDORIOAK

---

Lehenik eta behin, gure ezinegona agertu nagi dugu Lan eta Gizarte Gaietarako Sailak premiazko prozedura erabiltzen duelako EGABk Dekretu proiektu honen gaineko Irizpen egokia emateko, bere Hirugarren Azken Xedapenak ezartzen duenean indarrean 2011. urteko urtarrilaren 1ean sartuko dela.

Halaber, adierazi nahi dugu Gizarte Zerbitzuen eta Diru-sarrerak Bermatzeko sistemaren konfigurazioa, gure ustez, oso gai garrantzitsua dela, definitzen oso zailak diren elementuak dituena. Sistema konplexua da eta bertan erakunde askok esku hartzen dute, eta batzuetan judizioko elementu nahikorik ez dugu kontuen gainean jarrera hartzera behartzen gaituzte.

Ondorioz, ezin dugu jarrerarik hartu Dekretu Proiektu honen eduki globalaren gainean, aurretik azaldutako gogoetatik areago.

Bilbon, 2010. urteko uztailaren 30ean

O.E. Presidente  
Juan María Otaegui Murua

Idazkari Nagusia  
Francisco José Huidobro Burgos



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea  
Gran Vía 81, 7. solairua  
48011 Bilbao. Bizkaia  
[www.cesvasco.es](http://www.cesvasco.es)

**Maketazioa:** Cuatrobarras

**Inprenta:** Imprenta Gestingraf

**Lege Gordailua:** BI-2086-2010